

SEASKACHO BAT



Ara emen aur bat,
Jaio berria,
Jaungoiko izanik
Lurrez jantzia....

Begira nago,
Aur pozgarria,
Nola daukazun
¡Zer miraria!
Esna biotza,
Lotan begia.

Lotan zaude Zu
Lasto gañean,
Esna ta deyez
Atai gurean,
Intzez beterik
Gau illunean,
Arrenez eske,
Dei samurrean,
Ar zaitzagula
Guk, biotzean.

¡Ai, nere Jesús,
Atoz nigana!
¡Zorioneko
Zu zaukazana!
Zuretzako det
Nik biotz dana,
Ta naiz Zuk eman
Samiñ ta lana,
¡Zaude nerekiñ
Jesús laztana!

Gizon lurtarrak,
Esna ta jaiki,
Jaiki ta zabal
Biotza ireki.
¡Jauna da eskale!
¿Zeiñ ezta erruki?
Egiñ animan,
Epel ta garbi,
¡Seaskacho bat
Jesús Aurrari!

AGIRRE-KO DOMINGO-K.

